



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/04/13

Batzar Nagusiek baiezkoa emon deutsee Aldundiak Behargintzei laguntzak banatzeko ezarri dituen erespideei

Bizkaiko Batzarrak baiezkoa emon deutso gaur goizean Behargintzak izeneko Enplegu eta Tokiko Garapen zentroek jasoten daben laguntzetan izandako arauzko aldaketari. Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasuneko batzordeak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daben zuzenketa-eskea onartu dau, martiaren 8ko 47/2016 Foru Dekretuan Bizkaiko Foru Aldundiak ezarri dituan erespideakaz bat etorritz. Dekretu horren bidez, zentro horreei emoten jakezan baliabide ekonomikoen banaketea arautzen da. Bertan, diru-laguntzak banatzeko erespideak aldatzen dira eta diruz lagunduko diran jarduketak finkatzen dira.

Jeltzaleek eta sozialistek aurkeztu daben ekimenak, PP taldeak, martiaren 10ean, dekretua argitaratu eta segiduan, aurkeztu eban arauz besteko proposamen bat zuzentzen dau. Proposamen horren bitartez popularrek be diru-laguntzen erespidea aldatzearen alde agertzen ziran. Popularren helburua, Batzar Nagusiek Foru Aldundiari agindua emotea zan, “Behargintza zentroak hartzen dituen udalerrietako biztanle kopuru osoagaz proportzinoan jarduera gehiago gauzatzen dituen” zentroi diru gehiago emoteko. Azkenean, onartu dan osotasuneko zuzenketa-eskeak puntu hori eta beste batzuk jaso ditu. Bertan jasotakoak EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren aldeko botoa jaso dau, eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia abstenidu egin dira.

Behargintza zentroi emongo jakezan laguntzak “norgehiagoka” bitartez banatuko dira, Juan Otermin batzordekide sozialistak azaldu dauenez, lurraldeko “21” zentroi zuzendutako diru-laguntzen balorazinoan erespide barriak erabiliz. Horreen artean proiektuaren kalidatea eta koherentzia, zentro bakotxaren eragina jasoten daben udalerrien biztanle kopuru osoa, Behargintzek barne hartzen daben udalerrri kopurua eta haren jarduketa eredian dagoan langabezia maila azpimarratu ditu.

Dekretuak, talde jakin batzuen enplegarritasuna hobetu behar daben eta diru-laguntzak jaso daikiezan zentroen jarduerak finkatzen ditu: emakumeak, gazteak, 45 urtetik gorakoak eta denpora luzez langabezian dagozan edo gizartean baztertuta geratzeko arriskua daben pertsonak. Behargintzek alderdi honeetakoren bat aurreikusi beharko dabe euren eginbeharren artean: enpleguaren sustapena gizarte-osasunaren sektorean, enplegu berdea, udalerriko edo eskualdeko enpresa eta merkataritza egituraren hobekuntzea, gizarteratzean edo gizarte eta lan arloko barrikuntzan behar egiten daben enpresen sustapena, beste batzuen artean.

Batzarretako talde guztiek “modu positiboan” balorau ditue sartutako aldaketak, eta lortzen diran emaitzak neurtu arte itzarotearen aldeko apustua egin dabe. Dana dala, oposizinoko taldeek hainbat gauza puntualizau ditue. Podemos Bizkaia eskaerea egin



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dau, Behargintzen “filosofia aldatzeko”, enpleguaren prekariedadeagaz erlazionauta dagoan guztian. EH Bilduk eskualde bakotxaren beharrak eta zentro horreetako beharginen eretxia kontuan izatea eskatu dau, baina uste dau aurrekontua “oso umila” dala gaur eguneko lan egoerari erantzun egokia emon ahal izateko. Erakunde bakotxak daukan gehieneko zenbatekoa "50.000 eurokoa" da, Josu Unanue bozeroaleak adierazo dauenez.

TERESA LAESPADAREN AGERRALDIA

Beste alde batetik, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasuneko foru diputatu andreak, apirilaren 5eko 56/2016 Foru Dekretua aurkeztu dau Bizkaiko Batzarren aurrean, bere ekimenez. Dekretu horren bitartez, langabezian eta bazterkeria-arriskuan dagozan pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzea sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezarten dira.

Dekretuak ezarten dituan laguntzen zenbateko osoa “6.644.042 eurokoa” da, hau da, aurreko deialdian baino 2,4 milioi gehiago, autoenplegua eta enplegu egonkorra sortzea bultzatzeko eta enpresa egitura indartzeko.

Aldundiaren laguntzak, “egoera txarragoan” dagozan pertsonak lan munduan sartzerantz bideratuko dira, hau da, %33tik gorako urritasuna dabenak, genero indarkeriaren biktima diran emakumeak, buru gaixotasuna daben pertsonak, Diru-sarreraren Bermeko Erretea jasoten dabenak, tratamenduan dagozan toxikomano ohiak edo preso ohiak, beste batzuen artean.

Laguntzak ildo bitan oinarrituta egituratuko dira. Lehenengoan, enpresa proiektu barriak sortzeko laguntzak emongo dira, norgehiagoka metodoa erabiliz, eta zenbateko osoa "900.000 eurokoa izango da, %19,68 gehiago". Aurrekora joan ostean martxan jarriko dan bigarren ildoan, Sailak "5.744.042 euroko" zenbateko osoa erreserbau dau, “%6,46ko” hazkundeagaz, 5.000 eurotik 15.000 eurora bitartekoak, gehienez be, izango diran diru-laguntzen bidez.

Eskakizun nagusien artean Bizkaian bizi izatea, autonomoa izatea edo langabezian egotea eta aurretik DEMAn prestakuntza plan bat igaro izana dagoz. Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasuneko Sailak hainbat alderdi balorauko ditu eskintzetan, eskatzaileak langabezian daraman denporea, gizarte bazterkeria mailea, adina eta proiektua aurrera eroango dan lekuan dagoan langabezia tasea, beste batzuen artean.

Laespadak esan dauenez, aldaketa horreen xedea, langabezian dagozan 80.000 bizkaitar baino gehiagok osatzen daben talde horrentzako esfortzuak bikoizteko formula “eraginkorrena eta efizienteena” bilatzea da. Diputatu andreak bere konpromisoa erakutsi dau emaitzak ebaluetako eta emaitza horreek markautako helburuetara egokitzen diran ala ez ikusteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzarretako taldeek ondo balorau ditue aldaketak, batez be eskariak norgehiagoka librean balorauko diralako, eskariak “aurkezten diran ordena” kontuan izanda balorau beharrean. Eskaria kontuan izanda partidak handituko diran ala ez be galdetu dabe oposizinoko taldeek. “Ez dago horreek handitzeko ahalmenik”. “Bideragarrienei emongo deusaga lehtasuna”, erantzun dau Laespadak.

LANKIDETZARAKO LAGUNTZA “ZUZENAK”

PP taldeak egindako erantzun-eskeari erantzunez, Aldundiak bere lankidetzarako eta garapenerako programan emongo dituan zuzeneko laguntzen barri be emon dau Laespadak. Ekitaldi honetan “226.000 euro” bideratuko dira, "5.625.000 eurokoa" dan lankidetzarako aurrekontu osotik, hau da, aurrekontu osoaren “%4,1”.

Aldundiko arduradunak zehaztu dauenez, zuzeneko bost diru-laguntza onartu dira: "100.000 euro" Euskadiko eta Nafarroako 114 udalen –Bizkaiko 37– partaidetzea dauen Euskal Fondoarentzat, Tindufen dagoan errefuxiatu sahararren eremurako; "18.000 euro" Errepublika Arabiar Sahararraren Adiskideen Alkartearentzat; "20.000 euro" Unesco Etxearentzat; "34.000 euro" GKE Koordinakundearentzat; eta "54.000 euro" Harresiak Apurtuz erakundearentzat.

Eduardo Andrés batzordekideak esan dauenez, zuzeneko laguntza horreek 2015ean emondakoak baino “%50 gitxiago” dira. Laespadak erantzun deusonez, erespidea, lankidetzarako eta garapenerako diru-laguntza guztiak “norgehiagoka” bitartez banatzea da, sistema “garbiagoa” dalako. Zehaztu dauenez, dana dala, “500.000 euroko” partidea zabalik dago, eta behin-behinekotasunak agertu ahala banatuko da.

EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek eskaria egin dabe, lankidetzara bideratutako partidak handitu daitezana. “Arazoa, daukagun aurrekontua 2010eko aurrekontuaren erdia dala da”, adierazo dau Podemos taldeko Mikel Isasik. EH Bidutik eskaria egin da partiden zenbatekoa “bikotxa” izan daiten. EAJ-PNV taldeak, bere aldetik, legediaren bukaeran partida horreek aurrekontuaren %0,7ra ailegauko dirala uste dauela esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

13/04/2016

Las Juntas Generales respaldan los criterios establecidos por la Diputación para el reparto de ayudas a los Behargintzak

El Parlamento de Bizkaia ha respaldado esta mañana el cambio normativo producido en las ayudas que reciben los centros de Empleo y de Desarrollo Local Behargintzak. La comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad, ha aprobado una enmienda de PNV y PSE-EE en la que se viene a compartir los criterios establecidos por la Diputación foral de Bizkaia en el Decreto Foral 47/2016, de 8 de marzo, por el que se regula el reparto de recursos económicos a estos centros. En él, se modifican los criterios de reparto de las subvenciones y se fijan las actuaciones a subvencionar.

La iniciativa de jeltzales y socialistas venía a corregir una proposición no de norma presentada por el PP, el 10 de marzo, coincidiendo con la publicación del decreto, por el que esta formación abogaba también por cambiar el criterio de las subvenciones. Los populares pretendían que las Juntas Generales intaran al Gobierno foral a otorgar más dinero a los centros que hubiesen realizado un mayor número de actividades, en proporción a la población total de los municipios que abarquen los centros Behargintzak. Finalmente, la enmienda a la totalidad aceptada recoge este punto y otros cambios, cuestiones que han sido apoyadas por PNV, PSE-EE, PP y grupo Mixto, y que han contado con la abstención de EH Bildu y Podemos Bizkaia.

Las ayudas a los Behargintzak se otorgarán por “concurrentia competitiva”, según ha explicado el apoderado socialista Juan Otermin, utilizando nuevos criterios en la valoración de las subvenciones dirigidas a los “21 centros” del territorio, entre las que ha destacado la calidad y coherencia del proyecto, la población total de los municipios afectados por cada centro, el número de municipios que abarque el Behargintza y el índice de paro en el ámbito de actuación del mismo.

El decreto fija las actividades de los centros subvencionables que deben mejorar la empleabilidad de ciertos colectivos: mujeres, jóvenes, mayores de 45 años y personas desempleadas de larga duración o en riesgo de exclusión social. Los Behargintzak deberán contemplar entre sus cometidos alguno de los siguientes aspectos: la promoción del empleo en el sector sociosanitario, el empleo verde, la mejora del tejido empresarial y comercial del municipio o comarca, el fomento de empresas de inserción o de innovación sociolaboral, entre otros.

Todos los grupos junteros han valorado “positivamente” los cambios introducidos y han apostado por esperar a que se midan los resultados obtenidos, si bien los grupos de la oposición han realizado alguna puntualización. Podemos Bizkaia ha pedido que “cambie la filosofía” de los Behargintzak en lo que tiene que ver con la precariedad del empleo. EH Bildu ha pedido que se tenga en cuenta las necesidades de cada comarca y



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

la opinión de los trabajadores de estos centros, aunque cree que el presupuesto es “muy humilde” para dar respuesta a la situación laboral. La cuantía límite máxima por cada entidad es de "50.000 euros", según su portavoz Josu Unanue.

COMPARECENCIA DE TERESA LAESPADA

Por otro lado, la diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha presentado a iniciativa propia en la Cámara vizcaína el Decreto Foral 56/2016, de 5 de abril, por el que se establecen las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas o en riesgo de exclusión social.

El decreto establece ayudas cifradas en un montante total de “6.644.042 euros” que suponen 2,4 millones más respecto a la convocatoria anterior, para favorecer el autoempleo y la creación de empleo estable y de tejido empresarial.

Las ayudas forales irán destinadas a insertar laboralmente a las personas que se encuentran en “peor situación”, como son aquellas que tienen misnusvalías por encima del 33%, mujeres víctimas de violencia de género, personas con enfermedad mental, receptores de la Renta de Garantía de Ingresos, extoxicómanos en tratamiento o exreclusos, entre otros.

Las ayudas se estructuran en base a dos líneas. En la primera, se apoyará la creación de proyectos empresariales nuevos por el método de concurrencia competitiva con un importe total de "900.000 euros, un 19,68% más". En una segunda línea, a la que se accederá tras acudir a la anterior, el departamento ha reservado un importe total de "5.744.042 euros", con un crecimiento del "6,46%", mediante subvenciones que irán desde los 5.000 a los 15.000 euros como máximo.

Como requisitos principales para la segunda línea de ayudas se encuentra el de ser residente en Bizkaia, ser autónomo o estar en desempleo y haber pasado antes un plan formativo de negocio en DEMA. El departamento de Empleo Inserción Social e Igualdad valorará en las ofertas aspectos como el tiempo de desempleo del solicitante, el grado de exclusión social, la edad y la tasa de paro en donde se ubica el proyecto.

Laespada ha señalado que estos cambios obedecen a buscar la fórmula "más eficaz y eficiente" para redoblar los esfuerzos para ese colectivo de más de 80.000 vizcaínos y vizcaínas en desempleo. La diputada se ha comprometido a evaluar los resultados y ver si estos se ajustan a los objetivos marcados.

Los grupos junteros han valorado satisfactoriamente los cambios, mayormente porque suponen que las solicitudes se valorarán en libre concurrencia competitiva en lugar de "por orden de llegada" de las mismas. Los grupos de la oposición han preguntado si las



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

partidas se ampliarán en función de la demanda. “No hay capacidad para ampliarlas”. “Primaremos las más viables”, ha contestado Laespada.

AYUDAS “DIRECTAS” A LA COOPERACIÓN

Interpelada por el PP, Laespada ha informado de las ayudas directas que la Diputación otorgará en su programa de cooperación y desarrollo. Para este ejercicio, se destinarán “226.000 euros” de un presupuesto total para cooperación que alcanza los “5.625.000 euros”, lo que supone el “4,1%” del total.

La responsable foral ha precisado que se han aprobado cinco subvenciones directas: “100.000 euros” para Euskal Fondoa en el que participan 114 ayuntamientos de País Vasco y Navarra –37 vizcaínos- y que irá destinado al campo de refugiados sahariano de Tinduf; “18.000 euros” para la Asociación de Amigos y Amigas de la República Árabe Saharaui; “20.000 euros” para la Unesco Etxea; “34.000 euros” para la Coordinadora de ONGs; y “54.000 euros” para Harresiak Apurtuz.

El apoderado Eduardo Andrés se ha quejado de que estas ayudas directas suponen prácticamente “el 50% menos” que las otorgadas en 2015, a lo que Laespada ha contestado que el criterio es que las subvenciones en Cooperación y Desarrollo se lleven todas a “concurrentia competitiva” ya que es un sistema “más limpio”. Ha detallado que, en cualquier caso, existe una partida abierta de “500.000 euros” que se va otorgando en función de las eventualidades.

EH Bildu y Podemos Bizkaia han pedido, por su parte, que se aumenten las partidas destinadas a cooperación. “El problema es que tenemos un presupuesto que es la mitad que el de 2010”, ha manifestado Mikel Isasi, de Podemos. Desde EH Bidu han abogado por que estas sean “el doble”. El PNV, por su parte, espera que a final de legislatura alcancen el 0,7% del presupuesto.